

BILBOKO BIZKAIA PLAZAK 'TAUPADA/LATIDO' INSTALAZIO INTERAKTIBOA HARTUKO DU, *BILBAO BIZKAIA DESIGN WEEK 2025* ASTEAREN AURRERAPEN MODURA

- Diseinu interaktiboko instalazio deigarria da, herritarrak parte hartzera eta beren pultsua esperimentatzera gonbidatzen dituen, batzen gaituen energiaren sinbolo gisa. Larrialdi baten aurrean jarduteko konfiantza sustatu nahi da, eta bihotz-biriketako bizkortzea egiten jakitearen garrantziaz sentsibilizatu.
- 'Taupada/Latido' *Bilbao Bizkaia Design Week 2025* asteko leloaren metafora gisa ulertzen den jarduera bat da: 'Larrialditik biziberritzera', eta diseinua planteatzen du bizitza errazten eta eusten duen indar baten modura.
- Hiriaren erdiguneko Bizkaia plazan ikusgai egongo da, doan, gaurtik, azaroaren 14tik azaroaren 28ra, 12:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

(Bilbon, 2025eko azaroaren 14an).- Gaurtik, azaroaren 14tik, azaroaren 28ra, 12:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, Bilboko erdiguneko Bizkaia plazan ikusgai egongo da 'Taupada/Latido' doako instalazio interaktibo eta parte-hartzailea, zeinak herritarrak esperimentatzera gonbidatzen dituen, larrialdi batean jarduten jakiteko beharren inguruan kontzientziatzeko eta esku hartzeko beldurra galtzen laguntzeko.

Sormen-ekintza hau *Bilbao Bizkaia Design Week 2025* asteko programazioaren aurrerapena da. Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak urtero antolatzen dute Diseinuaren Astea, eta azaroaren 20an abiatuko da Zabalgune eraikinean.

'Taupada/Latido' *Bilbao Bizkaia Design Week 2025* asteko leloaren metafora gisa egindako jarduera bat da, "Larrialditik biziberritzera", eta diseinua planteatzen du bizitza errazten eta eusten duen indar modura. Krisi ekosozialeko testuinguru batean, proposamen artistiko horrek herritarrei gogorarazten die larrialdia izan daitekeela konpromiso kolektibo eraldatzaile baterako abiapuntua. Horregatik, instalazio honen bidez bisitariak jarduera batean parte hartzera gonbidatzen dituzte, haien pultsua eraldatuko duena, konexio- eta bizitza-keinu bihurtzeko eta, modu horretan, besteak zaintzeko eta suspertzeko botere kolektiboa sentitu dezaten.

Gaur goizean publikoari atea ireki dizkion 6 metro luze eta 2,5 metro zabaleko kontainer batean kokatua, 'Taupada/Latido' instalazioak parte-hartzearen, teknologiaren eta emozioaren bidez erakusten die ikusleei bihotz-biriketako bizkortzea (BBB) bizitzak salbatzeko gai den premia "koreografia" bat dela.

Instalazioa eta sormen-proposamena Gheada diziplina anitzeko arte-estudioak diseinatu eta ekoitzi du. Raquel Duránek eta Rut Brionesek sortutako estudioa murgiltze-esperientzietan, esperientzia interaktiboetan eta performatiboetan espezializatuta dago,

eta instalazio honen bidez **Bilboko Udaleko Osasun eta Kontsumo Sailak planteatutako erronka bati erantzuten dio.**

Aurtengo **Bilbao Bizkaia Design Week** astearen zeharkako ardatza **paradigma-aldaketa** izango da: azaroaren 20tik aurrera eta astebetez, jarduera ugarik aukera emango dute ideia honen inguruan hausnartu, partekatu eta lan egiteko: **larrialdia dugu ekintza eta aldaketa birsortzailea bultzatuko dituen konpromiso kolektiboa lortzeko abiapuntua**. ‘Taupada/Latido’ ideia horren inguruan herritarrak sentsibilizatzeko lehen pausoa da.

[Hemen duzu BBDW2025 astearen programazio osoa](#)

SARE SOZIALAK:

- BILBOKO UDALA: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#)
- BILBAO EKINTZA: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#)
- BILBO TURISMOA: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)

LA PLAZA BIZKAIA DE BILBAO ACOGE 'TAUPADA/LATIDO', LA INSTALACIÓN INTERACTIVA QUE ANTICIPA LA *BILBAO BIZKAIA DESIGN WEEK 2025*

- Se trata de una llamativa instalación de diseño interactivo que invita a la ciudadanía a participar y experimentar su propio pulso como símbolo de la energía que nos une. Se busca fomentar la confianza para actuar ante una emergencia y sensibilizar sobre la importancia de saber realizar una reanimación cardiopulmonar.
- 'Taupada/Latido' se presenta como una actividad que sirve de metáfora del lema de la *Bilbao Bizkaia Design Week 2025*, 'De la emergencia a la regeneración', mostrando el diseño como fuerza que sostiene y facilita la vida.
- Se puede visitar de manera gratuita en la céntrica Plaza Bizkaia, desde hoy 14 de noviembre y hasta el 28 de noviembre, en horario de 12:00 a 14:00 y de 16:00 a 20:00.

(Bilbao, 14 de noviembre de 2025).- Desde hoy 14 de noviembre y hasta el 28 de noviembre, en horario de 12:00 a 14:00 y de 16:00 a 20:00, la céntrica Plaza Bizkaia en Bilbao acoge 'Taupada/Latido', una instalación interactiva y participativa gratuita que invita a la ciudadanía a experimentar, con el objetivo de concienciar sobre la necesidad de saber actuar ante una emergencia y fomentar la pérdida del miedo a intervenir.

Se trata de una acción creativa que sirve como antesala de la programación de la *Bilbao Bizkaia Design Week 2025*, que organizan anualmente de manera conjunta la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Bilbao, y que arrancará el próximo 20 de noviembre en el edificio Ensanche.

'Taupada/Latido' se presenta como una metáfora del lema de esta edición de la *Bilbao Bizkaia Design Week* 'De la emergencia a la regeneración': es decir, plantea el **diseño como fuerza que sostiene y facilita la vida**. En un contexto de crisis ecosocial, esta propuesta artística recuerda a la ciudadanía que **la emergencia puede ser el punto de partida para un compromiso colectivo transformador**. Por ello, la instalación invita a participar en una actividad que transforma el pulso de quienes la visitan, en un gesto de vida y conexión, sintiendo así el poder colectivo de reanimar y cuidar.

Situado en un **container de 6 metros de largo y 2,5 metros de ancho** que ha abierto esta mañana sus puertas al público, 'Taupada/Latido' enseña a través de la **participación**, la **tecnología** y la **emoción** que la reanimación cardiopulmonar (RCP) es una 'coreografía' de urgencia capaz de salvar vidas.

La instalación y propuesta creativa ha sido diseñada y producida por el **estudio artístico multidisciplinar Gheada**, fundado por Raquel Durán y Rut Briones y especializado en

experiencias inmersivas, interactivas y performativas, y **da respuesta a un reto planteado desde el área de salud y consumo del Ayuntamiento de Bilbao.**

La ***Bilbao Bizkaia Design Week*** de este año tendrá como eje transversal el **cambio de paradigma**: a partir del 20 de noviembre y durante una semana, numerosas actividades permitirán reflexionar, compartir y trabajar en torno a la idea de que **la emergencia es el punto de partida para un compromiso colectivo que impulse acción y cambio regenerativo**. Y 'Taupada/Latido' es el primer paso para sensibilizar a la ciudadanía en torno a ello.

[Accede aquí a toda la programación de BBDW2025](#)

REDES SOCIALES:

- BILBAO UDALA: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#)
- BILBAO EKINTZA: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#)
- BILBAO TURISMO: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)